

artikulu nabarmenak  
artículos destacados

2012



Gazteen  
Euskal Behatokia  
Observatorio Vasco  
de la Juventud

martxoa



**Dezuanni, Michael; Monroy Hernandez, Andres. "Prosumidores interculturales": la creación de medios digitales globales entre los jóvenes**

Proiektu digitalak duela urte batzuk pentsaezinak ziren moduetan nazioartean zabaltzeko aukera ematen die gazteei "Scratch Online Community" delakoak. Mota horretako sormenezko komunitate guztiak bezala, ez da bakarrik produktuak, lanak, teknikak edo aholkuak partekatzeko gunea bat, gizarte-interakziorako gunea ere bada. Artikulu honetan, komunitateok kultura-arteko elkar-ulertzea eta ikaskuntza nola bultzatzen duten aztertzen da, bereziki elkarrizketa eta sormenezko ekintza baliatuta, eta gizarte-interakzioan oinarrituta. Artikuluan, aztertzen ari den komunitateok (Scratch) nazioarteko interakzio-kopurua adierazten duten estatistikak daude. Era berean, azterketa kualitatiboak ere badaude, foroko eztabaidak aintzat hartuta, gauzatutako kultura-arteko interakzio-motak aztertze aldera.

*Comunicar*, XIX. Lib., 38. zk., 2012 martxoa, 59-66. or.



**Soep, Elisabeth. Generación y recreación de contenidos digitales por los jóvenes: implicaciones para la alfabetización mediática**

Aro digitalak ekoizleen eta erabiltzaileen arteko harremanak birtaxutu ditu. Sareko ekintzak berrinterpretatzen dituzte beste erabiltzaile batzuek. Fenomeno honek komunikabideen eta gazteen inplikazioetan nolako eragina izan duen aztertzen da artikulu honetan. Kaliforniako irrati batean (Youth Radio) eragin handiko produktu mediatikoak sortzen dituen gazte-talde baten jardueren azterketa etnografikoan oinarritzen da azterlana. Youth Radioren barruko ikerketa-kazetaritzako ekimen batean du funtsa: komunikabide ugari uztartzen dituen serie bat, haurren trafiko sexualari buruz, 21 urteko gazte batek ekoitzia, eskarmentudun editore batzuek lagunduta. Azterketan, zera geratzen da argi: "gazte" komunikabideek gazte izateari uzten diotela produktu digital bilakatzen direnean, historia, antolakuntza eta ekonomia politiko jakina duten helduek eta erakundeek eduki hori behin eta berriz erreproduzitzen dutenean.

*Comunicar*, XIX. Lib., 38. zk., 2012 martxoa, 93-100. or.